

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1724

42/2022 DEKRETUA, apirilaren 5koa, zeinaren bidez gaitzen baitira 7.533.729,00 euroko kredituak 7111 Programan (Nekazaritza eta Landa eta Itsas Garapena), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2022. urterako aurrekontuko 9311 Programan (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu baitira.

2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 Erregelamenduak –COVID-19ak eragindako krisiaren osteko susperraldiari laguntzeko Europar Batasuneko suspertze-tresna ezartzen duenak– 2. artikuluan ezartzen du nola banatuko den tresna horren zuzkidura, eta, horren arabera, zati bat landa-eremuak garatzera bideratu beharko da. Baliabide gehigarri horiek LGENFren esparruko neurrien zenbatekotzat hartzen dira.

Beraz, konpromiso irmoak daude Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari 7.533.729,00 euroko diru-sarrerak emateko, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak kofinantzatutako laguntzei dagokienez.

Hori dela-eta, zenbateko hori gaitzen da, bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-arau-bidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko apirilaren 5ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea kreditu batzuk gaitzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2022ko aurrekontuan, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
7111	420,00	3.163.450,00
7111	720,00	754.089,00
7111	751,00	3.616.190,00
	Guztira	7.533.729,00

Diru-sarreren egoera-orri honetan zenbateko bereko diru-sarrerak lortzetik sortzen da kreditu hori:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	443,00	3.163.450,00
9311	743,00	4.370.279,00
	Guztira	7.533.729,00

2022ko apirilaren 21a, osteguna

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funts horiek.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 5ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.